

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko urtarrilaren 31. IX. urtea. 2.474. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Ander Rodriguez, Ibai Iriarte eta Enrique Samaniego, atzo, egoitza berria aurkezteko ekitaldian. ITZEAURKIZU

## Hondakin organikoa konpostatzeko kanpaina martxan dago

Tolosaldeko Zabor Mankomunitatea etxean konposta egitera animatzeko 'Ez bota, konpostatu!' kanpainarekin hasi da; prestakuntza eta materiala banatuko ditu o 4

## Agate Deuna bezperan koplaz koplakantuan aterako dira

Asteartea da Agate Deuna eguna, eta ohitura zaharrari jarraituz bezperan herri askotan atez ate abestera joango dira; ezdarriak berotzen hasteko askok entseguak dituzte o 5

## Adimeneko gaixoentzat zentro berria zabaldu dute Tolosan

Arkauten zegoen Gurutze Gorriko eguneko zentroa Larramendiko gune berrira pasa dute

Gaixoen autonomia izan eta elkarbizitzen ikasteko egokitu dute etxebizitza bat o 2

## Korrikak eskualdea gurutzatuko du eta hainbat batzorde lanean hasiak dira

Martxoaren 14ean hasiko da 18. Korrika, eta egun horretan bertan pasako da Tolosaldeetik; batzordeak ekitaldiak prestatzen ari dira o 6

## Euskal Herria Mendi Erronka Leitzan egingo da ekainaren 1ean

ESAITeko koordinatzaile Martxel Toledok garai «itxaropentsua» bizi dela eta gisa honetako probek duten «garrantzia» nabarmendu du o 7

## Tolosa UEMAko kide da Bilduko eta Aralarko ordezkariak esker

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean bost ordezkari izango ditu udalak; oposizioak ez du akordioaren aldeko bozkarik eman o 4

**ONGI ETORRI IKASTOLARA**

**Matrikulazio epea:**  
Urtarrilaren 28tik  
Otsailaren 8ra

**Anoetako Herri Ikastola**  
943 65 29 32  
[www.anoetakoherriikastola.net](http://www.anoetakoherriikastola.net)

**Irurako Ikastola**  
943 69 43 74  
[www.irurakoikastola.net](http://www.irurakoikastola.net)

**Jesusen Bihotza Ikastola (Vilabona/Zizurkil)**  
943 69 23 21  
[www.jesusenbihotzaikastola.com](http://www.jesusenbihotzaikastola.com)

**Laskorain Ikastola (Tolosa)**  
943 69 71 22  
[www.laskorainikastola.net](http://www.laskorainikastola.net)

**Tolosako Inmakulada Ikastetxea**  
943 67 36 29  
[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)

**Uzturpe Ikastola (Obarra)**  
943 67 12 99  
[www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)

**TOLOSALDEKO IKASTOLAK**

# Adimeneko gaixoen bizitza autonomorako zerbitzu berria

Orain arte Arkauten zegoen Gurutze Gorriko eguneko zentroa, Larramendiko gunera pasatu da

**I. Urkizu** Tolosa

Adimeneko gaixotasun kronikoak fase egonkorrean dituzten gipuzkoarrek, autonomia izaten ikasi eta elkarbizitzeko, zentro berria zabaldu dute Tolosan. Orain arte Arkauteko etxean eskaini izan dute, Gurutze Gorriak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eguneko zentroaren zerbitzua; Larramendi auzoko eraikin berrian osatu dute, orain, unitate berria.

Batetik, zortzi gaixoentzako etxebizitza egokitu dute, hezitzaile baten gainbegirapean bizi daitezten. Era berean, eguneko osasun eta gizarte zentro berria dago beheko solairuan, «rehabilitazio psikosozialerako».

Erakundeetako ordezkariek

nabarmendu dutenez, bost plaza gehiago zabaldu dituzte zentroan, eta modu honetara, «Tolosaldean adimen gaixotasunak dituztenen itxaron zerrenda desagertu egin da, bai etxebizitza gainbegiratuari dagokionez, baita eguneko zentroari dagokionez ere».

Inaugurazio ekitaldian, Gurutze Gorriko Gipuzkoako lehendakaria den Enrike Samaniego, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Ander Rodriguez diputatua, eta Tolosako alkatea Ibai Iriarte izan dira.

Alkateak, bere aldetik, zentroaren irekiera «sinplea baina oso pozgarria» dela azpimarratu du: «Aurreproiektuan baino azpiegitura handiagoak egokitu dituzte azkenean, eta goiko solairuko etxebizitzarekin batera, asistentzia zerbitzuaren zirkloa itxeko bidean gara Tolosan».

Gisa berean, pozik azaldu da Samaniego, eta beste herrietan antzeko egitasmoek izan duten arrakasta azpimarratu du, langileen jarduna goraiapatuz: «Oso



Fase egonkorrean daude, eguneko zentrorra joaten diren adimeneko gaixoak. I. URKIZU

ondo ezagutzen dituzte, eta gaixoa oso ondo egoten dira zentroetan, goxotasuna ematen dietelako».

Ander Rodriguezek, berriz, horrelako esparruetan erakundeen arteko lankidetzak duen garrantzia aipatu du, udalari eskerrak emanez.

## Bizitza autonomorantz

Egitasmoa aurrera eramateko, Tolosako Udalak Foru Aldundiari utzi zizkion, Uzturre kaleko hiru etxebizitza. Horrela, 140 me-

tro karratu inguruko lokal bakarra osatu dute etxebizitza egiteko, zortzi logelarekin; bakarkakoak dira bi, eta besteak binakakoak. 18 eta 60 urte bitarteko gaixo egonkorrei begirako etxea da, eta «beren gizarteratzea sustatzea da helburua, zerbitzuaren bidez gaixoen autonomia eta bizi kalitatea hobetuz», azaldu du Iriartek.

Horrela, bada, pasa den abendu erdialdeaz geroztik, bertan bizi dira zortzi pertsona, mediku nahiz hezitzaileen gainbegiratzekin. Bi gizarteratzeko etxebizi-

tzetatik etorri dira, eta beste biren etxe partikularretik; azkenik, lau egoiliar arreta handiko adimen gaixotasuna dutenentzako zerbitzuetatik bideratu dituzte Tolosako etxebizitzara.

Etxebizitza honetan arreta arina jasotzen dute, ohiko bizimodura egoki daitezten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 34.000 euroko inbertsioa egin du etxea hornitzeko, eta urteko mantentze kostuak ere aldundiaren esku geratu dira; 120.000 euro izango dira.

# Bost ordezkari izango ditu Tolosako Udalak, UEMAn

Inauterietan ikurrinaren aldeko kartel erraldoia zintzilika izango da udaletxeko balkoitik

**I. Urkizu**

Udalari Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) bost ordezkari izango ditu Tolosako Udalak, pasa den astearteko osoko bilkuran hala erabakita.

Bilduk eta Aralarrek osatutako udal gobernuak «hasiera-hasieratik» zehaztu izan du bere helburuetan, UEMAn sartzea: «Herriarren bizitza soziala nahiz administrazio jarduerak euskaraz izateko lanean dabil elkartean, 1993az geroztik, eta eleaniztasuna errespetatuz, kide diren udalerrietan euskararen nagusitasunaren alde lan egiten dute», azaldu zuten Inaki Irazabalbeitiak.

Era berean, eskualdeko 15 herri jada UEMAn kide direla nabarmendu zuten Irazabalbeitiak,

eta bide horretan, «eurekin harremana izateko abantailak» ekarriko dituela dio: «Tolosak euskaldun izaten irau du, neurri baten, inguruko herri txikiel esker».

Oposizioa ez zen ados agertu UEMAn kide izateko ideiarekin, hainbat arrazoiz medio. Batetik, PSE-EEko Jose Inazio Asensiok ez du beharrezkotzat jotzen kide izatea: «Tolosan badugu ahalmena euskaraz bizitzeko».

EAJko kideek, beren aldetik, azpiegitura gutxiago dituzten herri txikiak egokiagoa ikusten du UEMA, eta «Tolosak hizkuntza normalizazioan lanean jarraitzeko, Aitzol udal euskaltegia, EMUN aholkularitza, euskara zerbitzua nahiz eragileekin hitzarmenak» jada ditue-

la azaldu zuten Jokin Azkuek. Gainera, «krisi egoera honetan 17.000 euro honetarako erabiltzea ez da beharrezkoa».

Bozketa egin eta gero, beraz, eta «Tolosa, eskualdean duen ko-

## Oposizioak ez du aldeko bozkarik eman, Tolosa UEMAn kide izan dadin

kaleku eta garrantziagatik, euskararen hiri izateko bidean jartzeko», Ibai Iriartek «UEMAn 17.000 euro bideratzeak merezi duela» azpimarratu zuten

10.000 biztanletik gorako herriek bost ordezkari izaten dituzten UEMAn, eta beraz, Ibai Iriarte

te, Lore Agirre, Hasier De los Rios, Miren Urkola eta Inaki Irazabalbeitia izango dira Tolosako Udaleko bozeramaileak. Iriartek azaldu zenez, «oposizioek ez dute UEMAko ordezkari postua hartu nahi izan».

## Ikurrinaren aldeko aldarria

Kaldereroetan hasi eta inauteriak pasa bitarte, *Nazioa gara, geure ikurrina!* leloa daraman kartel erraldoia zintzilika izango da Tolosako udaletxeko balkoian.

Modu honetara, udalak bat egin nahi izan du pasa den astean hainbat herritarrek, Espainiako bandera jartzeko aginduaren aurka egindako agerraldiarekin.

Bide beretik, aginduaren sententzia iristen denean ezohiko osoko bilkura deituko du udalak. «EAJrekin elkarlanean ari gara auzi honetan, eta bigarren instantzian helegitea aurkeztuko dugu», azaldu zuten Ibai Iriartek. Modu honetara, sei hilabetetik bi urtera arte luza liteke bandera espainiarra jartzeko agindua; «herri bezala erantzun behar da, XXI. mendeari ez dagokion inposaketa baten aurrean».

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## ↓ Iragarki laburrak

### ESKUALDATZEA

**Taxi zerbitzua.** Zizurkilen, taxi lizentzia eta autoa eskualdatzen dira. Interesatuak, deitu 608 575900 telefono zenbakira.

### SALGAI EDO ALOKAIUAN

**Ileapaindegia.** Villabonan, ileapaindegia saldu edo alokatuko nuke. Interesa duen edonork, dei dezala 630 09 90 92 telefono zenbakira.

# Igandean bertaratuko da jende gehien, San Blas auzoko jaietara

Amets Arzallusek eta Anjel Mari Peñagarikanok bertso saioa eskainiko dute San Blas egunean

## Itzea Urkizu

Otsailaren 3an ospatzen da San Blas eguna, eta Tolosako auzo honetako jaiak badute tradizioirik; igandean, horrela, hainbat herri-tar bertaratuko da baseliza aldameneko plazara, opilen bila.

Tolosako Emendek Arraun Kiroel Elkartearen izaten da, urtero, San Blas auzoko jaiak antolatzearen arduraduna, eta antzinako ohitura dutela azaldu du Joxe Antonio Zubeldiak; baselizaren gaineko etxebizitzan bizi da bera, eta gertu-gertutik ezagutzen du, bada, festa: «Auskalo zenbat urte darra-matzen Emendek antolatzen! Esango nuke beti Emendek antolatuko duela; gure aita eta osabak-



Bihar hasiko dira San Blas auzoko jaiak. I. TERRADILLOS

labaiteko ohitura batzuk hartu dituzte jada, eta Anjel Mari Peñagarikanok bertsoari izena, esaterako, urtero izaten da egitarauan: «Peñagarikanorekin harremana dugu, bera kantuan hasi zenean, lehen saioa hemen egin baitzuten, San Blasen, Telleriarekin batera». Modu honetara, Anjel Mari Peñagarikanok lagun bat izaten du urtero, oholtzan.

## Dantza-pausoen atzetik

«Garai batean jende askok dantza egiten zuen», Zubeldiak azaldu

duenez: «Gaur egun, haur eta gaztetxoak aritzen dira, batez ere».

Aspaldiko erromerietako dantzarako ohiturak sustatzeko, ordea, Amaro zoko dantzariak aritu izan dira hainbat urtez: «Aurten ez dute denborarik izan ezer presatzeko, jende gutxiago elkartu baita, eta ezin izango dute emandiririk eskaini».

Izango da, ordea, Tolosatik nahiz inguruetatik jende gehien erakartzen duen opilik: «Opil asko saltzen dira, asko, eta batez ere San Blas egunean».

## San Blas auzoko jaiak, 2013

### OTSAILAK 1, OSTIRALA

- 18:00. Txupinazoa.
- 18:30etik 21:30era. Disko festa.

### OTSAILAK 2, LARUNBATA

- 09:30. Diana, Konpenezinak txarangaren eskutik.
- 12:00. Haurrentzako jolasak.
- 12:30. Toka lehiaketa auzokozentzat eta Emendek elkartekozentzat.
- 16:00. Toka lehiaketa, Gipuzkoa osoko jokalarientzat.
- 18:30etik 21:30era. Disko festa.

### OTSAILAK 3, IGANDEA

- 09:00. Diana, Tolosako Udaltxistulari Bandaren eskutik.
- 11:00. San Blas eguneko meza nagusia, baselizan. Bertako produktuen bedeinaketa izango da.
- 12:30. Aizkolarien saioa: Unai Otaño eta Joseba Otaegi.
- 13:00. Anjel Mari Peñagarikano eta Amets Arzallus bertsoari lehen saioa egingo dute.
- 18:00. Bertsoariak bigarren saioari ekingo diote.
- 18:30etik 21:30era. Elustondo anai-arreba trikitilariak emandira eskainiko dute.

# Urteko lehen azoka berezian, 16 landare mintegi izango dira

## I. Urkizu

Larunbatean Zuhaitz eguna ospatuko dute Tolosan, eta horrekin batera, 2013ko azoka berezietan hasiera emango diete. Guztira, Euskal Herri osoko hamasei landare mintegi bertaratuko dira Trianguloa plazara, beren produktuekin.

08:00etan hasi, eta 14:00ak bitarte izango da zuhaitzak, zuhaixkak, bonsaiak nahiz landareak ikusi eta erosteko aukera; mintegietako arduradunei, gainera, landareen inguruko galderak egiteko aukera ere izango dute erosleek.

Azken urteotako bideari jarraituz, Tolosako Zuhaitz egunak bat egin du joera berriekin: Japoniar jatorria duen bonsaien teknika ezagutzeko aukera izango da, beraz, batetik, eta produktu ekologikoak ekarriko dituen mintegi bat izango da, bestetik.

Aipatzekoa da, halaber, astero Atadi kalean egoten diren mintegiak bestelako landare eta zuhaixkekin izango direla etzi, eta ez ohiko lekuan; Trianguloan

baizik. Agirretxe mintegia (Donostia), Arakama Mintegia (Zegama), Dorronsoro mintegia (Ataun), Lasa mintegia (Albiztur) eta Urkizu mintegia (Anoeta) dira aipaturikoak.

o tolosa@hitza.info

## Mintegiak

<b>Agirretxe:</b> Donostia (Gipuzkoa)
<b>Arakama analak:</b> Zegama (Gipuzkoa)
<b>Aranburu:</b> Aginaga (Usurbil, Gipuzkoa)
<b>Areltito:</b> Zaldibar (Bizkaia)
<b>Belar:</b> Zaldibar (Bizkaia)
<b>Blasenea:</b> Zarautz (Gipuzkoa)
<b>Dorronsoro:</b> Ataun (Gipuzkoa)
<b>El montañes:</b> Tafalla (Nafarroa)
<b>Gullen:</b> Pueyo (Nafarroa)
<b>Magalarte:</b> Zamudio (Bizkaia)
<b>Urkizu:</b> Anoeta (Gipuzkoa)
<b>Victor Lasa y otra CB:</b> Albiztur (Gipuzkoa)
<b>Irun Bonsal:</b> Irun (Gipuzkoa)
<b>Txomin Bilbao:</b> Kortezubi (Bizkaia)
<b>Artadi:</b> (Bizkaia)
<b>Etxe Lore:</b> (Bizkaia)

## Irudia



# SUZIRIA BOTATZEKO ZAIN

Kabi Alai elkarteak Poca Tripa txaranga aukeratu du aurten, Inauterizale Kuttunaren izendapena emateko, 50 urteko ibilbideagatik. Datorren ostegunean, Tomas Arrizibitak botako du inauterizale hasiera emango dien suziria; txaranga sorkizaleetako bat da bera, irudian dauden Honorio Zubillaga, Fernando Roperero eta Jose Mari Mendibilekin batera. ITZEA URKIZU

## Laburrak

### Lagun artean futboleko aritzeko taldea

**KIROLA** Lagun artean, Usabalgogozelari txikian, futboleko aritzeko, jende beterranoa behar dute, bi talde osatzeko. 688 63 7784ra deitu behar da

### Musika eskolako ikasleen kaldereroetako emanaldia

**MUSIKA** Bihar, Eduardo Moko-roa musika eskolako ikasleek emanaldia eskainiko dute, Kalderero egunaren bezperan. 19:30ean hasiko da, musika eskolako areto nagusian, eta kaldereroetako nahiz inauterietako abestiak eskainiko dituzte, abesbatzak, bandak eta zingaroen taldeak.

### Bularreko minbizia detektatzeaz hitzaldia

**GIZARTEA** Asteartean, bularreko minbizia goiz detektatzearen inguruko hitzaldia izango da, kultur etxean, 17:30ean. Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Katxalin Elkarteak antolatuko du udalako Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuarekin laguntzaz.

### Garikoitz Mendizabal txistularia, gaur, Orbelan

**MUSIKA** Garikoitz Mendizabal txistularia izango da, gaur, 22:30etik aurrera, Orbelan tabernan. Berarekin, Xabier Zabala izango da soinu joaz. Mendizabal Bilboko Udaltxistulari Bandako zuzendaria da, eta *Txistu symphonic* argitaratu berri du Bratislavako orkestra sinfonikoarekin txistua uztartuz.

### Tolosaldea GLHIko doako ikastaroan lekua dago

**HEZKUNTZA** Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuan *Txirbil harroketak bidezko prozesuetako espezifikazio teknikoak* izeneko ikastaroa hasiko da astelehenean, eta oraindik bada lekurik. Ikasle eta langabetuei zuzendurikoa da, eta doakoa izango da. 943 65 11 47ra deitu behar da.

# Zabor mankomunitateak 'Ez bota, konpostatu!' kanpaina jarri du martxan

Zizurkilgo Udalak autokonpostaje ikastaroak jarri ditu martxan, Zero Zabor eredua bultzatzeko

## Asier Imaz

Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak *Ez bota, konpostatu!* kanpaina jarri du abian. Txerri jana bezala ezagutzen den hondakin organikoari irtenbidea ematea du helburu kanpaina honek, mankomunitateko herri guztietan. Hondakin organiko edo txerri jana birziklatzeko, etxeko konpostajea edo auzo konpostajea bultzatuko dute *Ez bota, konpostatu!* izeneko ekimenarekin.

Kanpaina honek hiru ardatz nagusi ditu: azaldu dute mankomunitateak: «Orain arte banatutako konpostagailu guztien jarraipena egingo da; mankomunitate mailan konpostajeak duen potentzialtasun maila aztertuko da, eta hainbat herrietan materia organiko konpostajearen bidez kudeatzeko sistema ezarriko da».

Konpostagailua jarri eta birziklatzen hasi aurretik, formakuntza eta beharrezko materiala lortu behar dira. Mankomunitateak azaldu dutenez, hori euren lana izango da, hau da, bai ikastaroak ematea eta baita konpostagailua jartzeko materiala herritarren ar-

tean banatzea; «pentsa, sortzen dugun hondakin %40, gutxi gorabehera, materia organiko da; erraz konpostatu daitezkeen sukaldeko edo lorategiko soberakinak hain zuzen ere», gaineratu dute.

Konpostajearen prozesuan soberakin organikoak baliabide bihurtzen dira: konpostan. *Ez bota, konpostatu!* ekimenarekin bat eginez gero, bildu, garraiatu eta zabortegian lurperatu beharreko hondakin kopurua gutxitu egingo dela azaldu dute mankomunitateak. Horrez gain, zera zehaztu dute: «Prozesu honi esker konpostatu lortu ahal izango da, hau da, balkoi, lorategi edo baratzeak landareentzako kalitate handiko ongarria».

Parte hartu nahi duten herritarrek *konpostatu.tolosaldea.org* webgunean sartu behar dute, *Konpostatu egin nahi duzu?* atalean izena emateko. Mankomunitateak esan dutenez, «epe laburrean jarriko gara izena eman duten herritarrekin harremanetan. Formakuntza ikastaro baten bitartez, konpostagailua muntatzen eta prozesua martxan jartzen erakutsiko dugu. Erraza, eroso eta garbia dela agerian geldituko da».

## Zizurkilgo udala bitartekari

Zizurkilgo Udalak Zero Zabor eredua bultzatzeko konpromisoa hartu du, eta horretarako, autokonpostaje kanpaina jarri du

martxan: «Udalak bakoitzak bere konpost egitea proposatu du, gero etxean erabili ahal izateko». Helburu hori gauzatzeko, Zizurkilgo Udalak ikastaroak antolatuko ditu, konpostatu nola egin erakusteko. «Bertan, konpostatu den, nola egin den eta nola erabiltzen den erakutsiko da», esan dute udaletik. Ikastaroak 1,5 orduko iraupena du, eta teorikoa izango da. Parte hartzaile bakoitzari konpostagailu bat emango zaio, beti ere, udaletik azaldu duten bezala, baldintza batzuen trukean: «Alde batetik, konpostagailua erabiltzea, hau da, erabiltzen ez duenak itzuli egin beharko du beste batek erabil dezan; eta bestetik, udaleko teknikariak konpostagailua dagoen tokia bisitatzeko baimena edukiko du, gehienbat prozesua kontrolatzeko edo laginak hartu ahal izateko».

Autokonpostajea egiten duten familiek %25eko hobaria izango dute hondakin tasetan, izan ere, «etxean konpostatzen duten herritarren hondakin organikoak ez du udalak bilduko, ezta tratatuko ere».

Ikastaroan izena eman nahi duten herritarrek udaletxera joan, edo 943 69 10 12 telefono zenbakira deitu behar dute. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek, e-mailez ere badute izena emateko aukera, *birziklatu@zizurkil.com* helbidera idatziz.

# Uriaren aurkako atentatuaren berri irradi bidez izan zuela dio Castrok

Auzitegi Nazionalean, Amasa-Villabonako auzipetuaren testigantzarekin bat etorri dira bi lekuko

## Erredakzioa Amasa-Villabona

Espainiako Auzitegi Nazionalean Inaxio Uriaren aurkako atentatu argitzeko epaiketa hasi zuten atzo. Manex Castrok billabonata-

rrari atentatu horretan parte hartzea leporatzen dio Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak, baina billabonatarak salaketa ukatu egin zuen atzoko saioan. Atentatuaren berri irratian bidez izan zuela azaldu zuen Castrok. Une horretan, lanean zebilela esplikatu zuen billabonatarak, eta bere nagusiarekin eta beste lankide batekin zegoela. Bi lekuko hauek epaiketan izan ziren atzo, eta Manex Castrok esandakoa berretsi zuten: lanean ari

zirela irratian entzun zuten Azpeitian atentatu bat gertatu zela. Castrok egun espetxean dago, aurrez eginiko hainbat epaiketatan 300 urtetik gorako espetze zigorra jarri baitzioten ETAKo kidea izatea leporatuta, besteak beste. Epaiketa berri honetan, fiskaltzak 59 urte eta bi hilabeteko espetze zigorra eskatzen du Castrorentzat. «Talde terroristako kide izatea, bahiketa terrorista ilegala egitea, auto lapurreta eta hilketak eta kalte terroristak». Horiek dira leporatzen dizkieten delituek. Fiskalak kalte ordainak ere eskatu ditu, hain zuzen, 160.000 euro Inaxio Uriaren alargunari emateko, eta 240.000 euro, semeentzako.

Inaxio Uri ETAK hil zuen 2008ko abenduaren 3an, Azpeitian, 71 urte zituela. Altuna y Uri enpresako jabea zen.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK  
IKAS KOMUNITATEA  
**PEDRO M<sup>o</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**  
Pagamunio auzoa, 16 - ZIZURKIL  
Tel.: 943 691 478  
P.E: 012041aa@hezakuntza.net  
www.pedromariaotanoji.hezakuntza.net  
Aurrematrikulazioa:  
Urtarrilak 30etik Otsailak 10 arte

## Gutuna

### Elkartasuna Huyck Wangner 'Perot'-eko langileekin!

Huyck Wangner-eko jabeek Zizurkilgo lantokiko 81 langiletik 75i eragiten dieten kaleratzea aurkeztu dute fabrika itxeko helburuarekin. Xerium Technologies multinazionalaren eskuetan dagoen lantoki honek irabaziek itxi zuen 2012a, baina bere jabeek are gehiago lorzea nahi dute. Eta horretarako beharrezkoa bada euren lantokietako bat itzea, kasu honetan Zizurkilgoa, ez dute inolako arazorik, ez zaie batere axola 75 langileengan eta hauen familiengan eragingo luketen egoera. Honen aurrean, Euskal Herria Sozialistak babes osoa eman nahi die Huyck Wangner-eko langileei, eta antolatzen ari diren mobilizazio guztiei, eta bide batez, gure proposamenekin egiten borroka honen garaipenean laguntzeko.

Huyck Wangner-eko langileek borrokarako gaitasun ikaragarria erakutsi dute greba orokor mugagabea deituz, eta Tolosan, otsailaren 2an manifestazioa antolatu. Hau da eraso gera dezakeen bidea. Baina borrokarako lehenengo pausok jarraipena izan behar dute. Beharrezkoa da eraso atzera bota arte denboran luzatuko den mobilizazioen egutegia antolatzea. Baina, guztia gainera, funtsezkoa da gatazka kanporantz zabaltzen jarraitzea.

Kapitalisten beldur handiena borroka bateratua eta langile klasearen antolakuntza handiena dira. Horregatik, pauso garrantzitsua litzateke Tolosaldean gatazkan dauden fabrika ezberdinetako borroka eta gatazkek bateratzeko eta koordinatzeko lan egitea (Arreche, Gamesa, Manipulados Araxes, Borobil, Antalis, SAM...), eta bo-

rokan dauden enpresen koordinadora bat sortzea enpresa guztietako langileak sufritzen ari diren eraso bereberri indar handiagoz aurre egiteko.

Honekin batera, funtsezkoa da gure eskualdeetako biztanleria borroka honetan inplikatzeko, plantilaren mobilizazioak antolatuz herrietan, auzoetan, poligonoetan eta ikastetxeetan, euren borroka ere baden milaka langile eta gazteren babesa lorzeko. Elkartasunezko Komiteak antolatu behar dira ezkerreko kolektibo eta erakunde sozialak, sindikalak eta politikoak gehitu daitezkeen, eta ekintza konkretuekin mobilizazioaren arrakasta lagundu dezaten. Gainera, beharrezkoa da elkartasuna eta batasuna bilatzea multinazionalaren gainontzeko lantokietako langileekin.

Multinazionalak zatiketa eta beldurra erabiltzen baditu, langileek batasunaren eta elkartasunaren alde egin behar dute apustu. Gaur egungo egoeran, Huyck Wangner-eko langileen erreferentzia puntu bihurtu daitezke. Hau gertatzen bada, multinazionalak jasan beharko lukeen presioa ikaragarria izango litzateke, eta beren planak atzera botatzea posible izango litzateke.

Azkenik, kaleratzeen eta fabrika itxieraren mehatxuaren aurrean, langileok badugu alterntiba lanpostuak eta ekoizpenaren bideragarritasuna bermatzeko: enpresaren nazionalizazioa langileen kontrolpean. Fabrika publiko batekin, langileek kontrolatuta, lan baldintzak eta lanpostuak bermatu ahaliko lirateke, eta enpresaren irabaziaz ez lirateke gutxi batzuentzat izango, osasun eta hezkuntza publiko bezalako behar sozialak asetzeko baizik.

■ **Ibon Artola.** Euskal Herria Sozialista aldizkariako kidea.

# Espainiako banderaren afera aztertuko dute

## A. Imaz

Bai Euskal Herriari ekimenak eskualdeko eragile, alderdi eta elkarrekin ordezkariekin batzar irekia egingo du otsailaren 5ean, asteartean, Tolosako Kultur Etxean. Bertan, Espainiako banderaren afera aztertuko dute. Batzarra 18:30ean hasiko da, eta iraupena gehienez ordu betekoa izango dela azaldu dute herri ekimenetik.

Espainiako bandera jartzeko agindua ia eskualdeko udaletxe guztietara iritsi da. Horren aurre-

an, Bai Euskal Herriari guztien artean erantzun bateratua bultzatu nahi du. Helburu horrekin, lehenik eragile desberdinen babesa bilatu nahi da, jarraian, atxiki-mendu horrekin eskualdeko udalbatza guztietan mozioak aurkezteko.

Horrez gain, martxoaren 9an eskualdeko manifestazioa deitu dute Bai Euskal Herriaritik. Mobilizazioa Tolosako Triangulotik irteango da, 17:00etan. Manifestazioaren leloa berriz, ondorengo izango da: *Inposaketarik ez, geurea ikurriña.*

# Agate Deuna bezperan denak kantuan aterako dira

Astelehenean, batez ere iluntzean, herritar asko aterako dira Tolosaldean zein Leitzaldean abestera

**Rebeka Calvo**

Astelehenean Agate Deunaren koplak entzun ahal izango da eskualdeetako bazter askotan. Agate Deuna bezpera izango da, eta urtero legez, herritar asko aterako dira kantatzera. Txukun samar abesteko, hala ere, entse-

guak ere egin behar izaten dira, eta zenbait herritar gaur eta bihar artean bilduko dira.

Gaur Anoetan eta Ibarran elkartuko dira; Anoetan 20:00etan, Kuku elkartean, eta Ibarran ordu berean Azkue auzoko kale hezitzaileen lokalean.

Bihar berri, Tolosaldeko Lizardi elkartekoek egingo dute entsegua, 19:00etan, elkartean bertan. Zizurkilen, kantu taldekoak, 19:00etan elkartuko dira, kultur etxean. Eta Adunan 18:30etan da hitzordua, kultur etxean.

Astelehenean, hortaz, Agate Deunaren mito paganoa ekarriko

dute gogora, inauterietan zerikusia duen festa dena, hain justu.

Inauterietan zehar, ki-matzeko garaia zen, eta badirudi jaien oinarrian gizon-emakumeen arteko amodio kontuak zeudela. Gizonak koplak kantatzera joan eta bildutakoarekin afaltzeko biltzen ziren gero. Bikoteek beren amodioa lagunaren aurrean erakusten zuten afarian eta ondoren, alde egiten zuten, beren amodioa ospatzeko.

Elizari bekatuzko giroa zela iruditu eta jaiak nolabait garbitzeko sortu zuen Agate Deunaren jaiak.



Ibarran Hauspoak antolatuta ateratzen dira eskean. XANTOS

## ↓ Agate Deuna bezperako egitaraua

### ADUNA

■ **Arratsaldez.** Ordua ez dute finkatu oraindik, horretarako bihar ostirala bilduko dira, 18:30ean, kultur aretoan.

### ALBIZTUR

■ **14:30.** Haurrak eta gurasoak kantuan aterako dira egun guztiaren zehar. Dirua eskolako beharretarako izango da.

### ALEGIA

■ **19:00.** Txintxarri abesbatza aterako da herriko Zazpi Astoren Gainean Bertso Eskolaren bertsolariekin batera. Larraitz auzotik aterako dira eta herriko

plazan bukatuko dute kalejira. Koplak eta Agate Deunaren bezperako doinuak tartekatuko dituzte. Bertsolariekin ateratzen diren laugarren urtea da.

### ASTEASU

■ **10:00.** Pello Errota eskolako ikasleak baserri baserri ibiliko dira.

■ **18:00.** Usarrabi kantu taldeko kideak eta trikiti zein pandero eskolako taldekoekin batera aterako dira Elizmenditik herriguneari zehar ibiltzeko.

### ANOETA

■ **15:30.** Herritar talde batek antolatuta plazan elkartuko dira

eta handik baserrietara joango dira. Baserrietako ibilbidea amaituta, 18:00etan plazan elkartuko dira berri, kalez kale ibiltzeko. Gaur entsegua egingo dute 20:00etan, Kuku elkartean.

### IKAZTEGIETA

■ **Arratsaldez.** Urteroko ohiturari jarraituz, herriko emakumeak abesten ibiliko dira. Lehenik baserri baserri ariko dira kantuan, eta gero herrigunetik pasako dira.

### IBARRA

■ **18:30.** Hauspoa kultur elkarteak antolatuta Santa Ageda

eskea aurten, arratsaldez egingo dute Izaskun auzoan zehar. San Bartolome plazatik aterako dira. Gaur 20:00etan, Azkue auzoko kale hezitzaileen lokalean, entsegua egingo dute.

### LEITZA

■ **18:00.** Urteroko moduan, plazatik abiatuta koplak kantuan ibiliko dira. Bertako musikariak eta bertsolariek laguntzarekin egingo dute kalejira.

### TOLOSA

■ **17:30.** Eduardo Mokoroa musika eskolakoak kalejiran aterako dira eskolatik bertatik.  
■ **18:00.** Lizardikoak elkartean

bertan elkartuko dira askaria egiteko eta gero, aterako dira kalera, 18:30ak aldera. Entsegua berri bihar egingo dute 19:00etan, elkartean.

■ **Iluntzean.** Txistulari taldea 19:00ak aldera aterako da kalejiran, Gure Txokoa elkartetik.

### ZIZURKIL

■ **15:00.** Pedro Mari Otaño ikastetxeko lehen hezkuntzako haurrak aterako dira herriaren zehar kalejira egitera eta 16:00ak aldera itzuliko dira eskolara.  
■ **Iluntzean.** Kantu taldekoak iluntzean aterako dira kalejiran. Entsegua bihar egingo dute 19:00etatik aurrera, kultur etxean.

## Irudia ◊ Alegia



## EGUTEGIA ATERA DUTE

Intxurre futbol elkarteak, urtero legez, egutegia atera du hasi berri den urterako. Erretirodunen tabernan edo kultur etxean erosi daitezke 5 euroren truke, eta ateratzen duten dirua taldeari laguntzeko izango da. Egutegian Intxurre elkartearen kide diren futbol taldeetako argazkiak ikusi ahal dira. HITZA

## → Laburrak

### Erretirodunen tabernako zozketako irabazlea

**ALEGIA** ◊ Alegiako erretirodunen tabernan Gabonetarako txartelak atera zituzten, eta zozketa 118 zenbakidunak irabazi zuen. Baina bertako arduradunek esan dutenez, sariduna ez da oraindik opari sortaren bila pasa eta aste honetan izango du azken aukera.

### Intxurrekoen pilota partidak, larunbatean

**IKAZTEGIETA** ◊ Alegiako Intxurre pilota eskolako kirolari gazteek partidak izango dituzte larunbat goizean, otsailak 2. Norgehiagokak Ikaztegietak pilotalekuan izango dira 11:00etatik aurrera. Nagusien Intxurre-Zestoa eta Intxurre-Urnieta taldeak izango dira lehenak, eta Intxurre-Lapkel taldeak ariko dira, gero.

**Mauka** Berria

**Sorta gastronomikoa Andia hotelean**

HOTEL ANDIA  
0919 29  
1110 Osoan (Nabarra)  
Tel. 943 32 14 11  
www.andia.com

**Prezioa 150€**

**www.mauka.eu**

**berria**

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

Euskalduna, Denona eta Denontzat

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

Matrikulazio epea:  
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

**Fleming Ikastetxea.**  
Flour Hezuntza Arrosan (2-6 urte)  
Lehen Hezuntza Arratsainan (3-12 urte)  
Tel.: 943-39 14 13 - 012277@hezkuntza.net  
flemingvillabona.blogspot.com

**HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA**  
7:30etatik 9:00tara

**Enribea B.H.I.**  
Villabona  
Enribea Ikastetxea.  
Demigomendio Bigarren Hezuntza  
Aratsainan (12-16 urte)  
Tel. Faxa: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net  
www.enribea.eu

# Korrika batzordeak hasi dira jada lanean

Tolosaldeko 10 herritan osatu dituzte taldeak; martxoaren 14an bertan pasako da Korrika eskualdetik

Zizurkilen, Tolosan eta Amezketan gaur arratsaldean egingo dituzte batzarrak

**Rebeka Calvo** Tolosa

18. Korrika ez da martxoaren 14a arte hasiko, baina herriz herri hasi dira jada beroketa lanetan. Tolosaldean hainbat herritan osatu dituzte Korrika Batzordeak eta Adunan eta Anoetan, gainera, Korrikaren aldeko egunak ere prestatu dituzte.

Adunan izango da lehenengoa, otsailaren 2an, eta Anoetan berri, hilabete beranduago, martxoaren 2an. Bietan, Korrikako materiala erosteko aukera ere izango da. Eta Adunan Korrika Txikia ere egingo dute martxoan, nahiz eta eguna zehaztu behar duten oraindik.

Ekitaldiak pixkana-pixkana ari dira antolatzen, eta baita batzordeak ere. Unai Balda da Tolosaldeko 18. Korrikako koordinatzailea eta Tolosaldean batzordeak 10 herritan osatu dituztela gogoratu du, Alegiaren kasua berezia delarik, bertan zegoen kul-

tur talde batek hartu baitu guztia antolatzeko ardura. Dena den, beste herri guztiak ere animatu nahi ditu batzordeak osatzera, eta Korrikarekin harremanetan jartzera. Eskualdeko hurrengo osatu dituzte Korrika Batzordeak. Zizurkildarrak bilduko dira 19:00etan, Atxulondon; tolosarrak 18:30ean, Lizardi elkarteetan; eta Amezketan 19:30ean erabile- ra anitzeko gelan.

18. Korrika martxoaren 14an bertan pasako da Tolosaldeko.

## Ginkana eta musa

18. Korrika honetan, «giroa berotzen joateko», ginkana eta mus txapelketak antolatu dituzte herriz herri. «Euskara ikasleen eta gainontzeko herritarren parte hartzea bultzatzeko antolatu dugu ginkana, proba eta pista jolas izango da», esan du Baldak.

Parte hartu ahal izateko izen ematea bukatu da jada eta osatutako talde bakoitzak 5 euro or-



Larunbatean, Usurbilen, euskara ikasleak omendu zituzten, haietako zazpiti lore sorta bat emanda. A.EK

daindu behar izan dituzte. Partaide bakoitzari kamiseta bana eman diote, ginkanako taldeak bereizi ahal izateko. Talde bakoitzean gehienez, 8 kidek eman dute izena.

Probei dagokienez askotarikoak izango dira; esfortzu fisiko apur bat egitekoak; talde lana eta punteria ona lantzekoak; oreka, trebetasuna eta lotsa ez eskatzen dutenak... Herrialdeko kanporaketak martxoaren 2 eta 3an edo 9 eta 10ean egingo dituzte eta finala Korrikaren amaierako jaiak jokatu dute, hau da, martxoaren 24an, Baionan.

Mus Txapelketari dagokionez, Ikaztegieta egin zuten jada lehiaketako lehen kanporaketa, eta Villabonan otsailaren 15ean egingo dute. Villabonan ginkana otsailaren 16an egingo dute.

## 2.000 km baino gehiago

Korrika Andoainen hasi eta Baionan bukatu da, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, egingo dituzten bi milatik gora kilometroetan euskara denona eta denontzat dela aldarrikatuko dute. «Euskara da euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko aukeratu nahi dugun hizkuntza; elkarri hitz egiteko, elkar entzuteko eta ulertzeko», esan du Baldak. Le-



Unai Balda da Tolosaldeko Korrikako koordinatzailea. R.CALVO

loa ere, *Eman euskara elkarri*, zentzu horretan doa, eta baita logoa ere. Bi esku ageri dira, Korrikaren lekukoa bata besteari pasatzearen unea, alegia.

Edizio honetako omennduei dagokionez, hauek ikasleak izango dira, euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren ikasleak, hain justu. Eta hauek guztiak pasa den larunbatean Usurbilen egingadako ekitaldian omendu zituzten.

Korrikako antolatzaileek nahiago izaten dute euskararen aldeko jai erraldoiaren elementuak banan bana aurkeztu, eta oraindik datozen asteetan aur-

kezpenak egingo dituzte, baita Tolosaldeko Korrikarena ere. Kanta, hala ere, aurkeztu dute jada. Esne Beltza taldeak egin du, *Bagoaz!* izena du, eta taldeko Xabi Solanoren hitzetan «korrika egiteko gogoa pizten du». Kantuaren bideoak ere egin dute.

Era berean, arropak ezin huts egin, eta 18. Korrikako jantziak ere prest dira jada. Egiten diren ekitaldietan erosi ahal izango dira eta baita Euskal Herriko Plaza webgunean ere. Arropa dendak Donostian eta Iruñean jarri dituzte.

## ↓ Tolosaldeko ibilbidea

### MARTXOAK 14, OSTEGUNA

- **Aduna.** 17:09ean sartuko da Korrika herrira Sagasti hasieratik eta handik herriko baselizara joango da.
- **Zizurkil Gora.** 17:22ean iritsiko da bidegurutzera.
- **Villabona.** Yoa Estetika dendatik sartuko da Korrika herrira 17:29ean, handik Irualdetako bidegurutzera joango dira (17:35), eta gasolindegia baino lehenago dagoen Decorativa dendaraino joango dira gero.
- **Irura.** Autobian Irura eta Anoeta alderantz joango dira 17:48ean, eta handik Aizpurua jatetxera (17:55).
- **Anoeta.** Herriko zubira 18:01ean iritsiko dira, eta handik Calparsora joango dira (18:08).

- **Tolosa.** Belate sarrerara (lehenengo TAOaren makinara) 18:14ean iritsiko dira, handik San Frantzisko elizara joango dira (18:21), lurre auzoko lehen etxera gero (18:27), eta Amaroitz auzotik (18:34) joango dira San Blasetik jaisteko eskaileretaraino.
- **Ibarra.** Biribilgunera joango dira 18:47ean, eta Leaburuko zubira joango dira gero (18:53).
- **Tolosa.** Leidorretik 19:00etan pasako dira eta Bentaundira joango dira (19:06), eta handik, bidegorritik, Alegiara.
- **Alegia.** Altzoko bidegurutzera 19:32ean sartuko dira, eta Alegiako sarrera baino lehen ezkerretara sartuko dira (19:39) Alegiako Zumardira iristeko.
- **Ikaztegieta.** Ikaztegieta sarrerara 19:58ean iritsiko dira eta handik joango dira Goierrira.

## ↓ Korrika egunetako egitarauak

### ADUNA, OTSAILAK 2

- **11:00.** Plazatik Belkoainera artekotik mendira martxa.
- **14:00.** Bazkaria Txulobi elkarteetan.
- **14:00.** Txartelak Uztartza tabernan eta Txulobi elkarteetan, helduek 15 eurotan eta haurrek 5 eurotan.
- **16:00.** Korrikaren aldeko Mus Txapelketa.

### ANOETA, MARTXOAK 2

- **12:00.** Ekitaldia: kantaldia Lotatzoko ikasleekin, dantzaldia Anitz herriko taldearekin eta bertsoak.
- **14:00.** Barrikotea eta paella jatea, frontoian.
- **16:30.** Ginkana.
- **19:00.** Bakarleri bat Mikelasa-gasti auditorioan.
- **23:00.** Kontzertua Gaztetxean.

## Ikus-entzunezkoak

■ **Abestiaren bideoak.** Esne Beltzaren *Bagoaz!*.



■ **Bideoa.** Omennduei egingadako bideoa.



# ESAITek bultzaturiko Euskal Herria Mendi Erronka hartuko du Leitzak

60 kilometroko proba ekainaren 1ean izango da; udala gustura dago «proba onuragarria delako herriarentzat»

**Iñigo Terradillos** Leitza

Ekimen berri bat hartuko du Leitzak ekainaren 1ean, Euskal Herria Mendi Erronka. ESAIT (Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea) da antolatzailea eta Leitzako Udalarekin batera herritar talde bat ari da laguntzen probaren prestaketan.

Leitzan hasi eta bukatuko da 60 kilometroko luzera eta 6.000 metroko gainbehera izango duen proba. 07:00etan irtengo dira lasterkariak, eta 13:00etarako aurreikusten dute hasiko direla lehenengoak iristen Leitzako helmugara. Tartean, Guratz,



Irumugarrieta izango da ibilbideak duen punturik gorena. HITZA

Gorriti, Arribe, Gaintza, Hirumugarrieta, Albi, Artxueta, Lekunberri, Etxarri, Ireber eta Kornietak igarotuko dituzte. Maila gorenera Irumugarrietan (1.431 metro) iritsiko dira. Sei kontrol izan-

go ditu ibilbideak, eta jateko eta edateko bederatzi gune ere izango dira.

Gizonezko, emakumezko nahiz beteranoen mailak egongo dira, eta txapelketa mota desberdinak,

banakakoa edota klub mailakoa kasu. Izena emateko epea irekita dago, eta horretarako, [www.ehmendierronka.com](http://www.ehmendierronka.com) helbidera jo beharko da. Federazioaren lizentzia dutenek 50 euro ordaindu be-

harko dute eta lizentzia gabekoenek, 55.

Dortsalen banaketa Leitzako plazan izango da Euskal Herria Mendi Erronkaren aurreko egunean, hau da, maiatzaren 31n, 18:00etatik 20:00etara eta probaren egun berean, 05:00etatik 06:00etara. Egundik, ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu dute ekimena ikustera gerturatzeko diren mendizaleek Leitzan egun pasa polita egin dezaten.

## «Leitzalde ezagutaraziko du»

Oier Eizmendi Leitzako alkateak adierazi duenaren arabera, «oso gustura» daude I. Euskal Herria Mendi Erronka Leitzan egingo delako: «Pasa den urteko azaro aldera elkartu ginen ESAITeko kideekin, eta euren ideia hasieratik oso interesgarria iruditu zitzaizgun». Eizmendiren esanetan, «turismoari bultzadaxoa emateko oso baliagarria izango da, egun horretan jende ugari izango delako, eta Leitza eta bere zonaldea ezagutarazteko balioko duelako».

Bada, gurean zaletasun handia duen kirolak badu proba garrantzitsuen artean lekutxo egin nahi duen beste hitzordu bat.

**Martxel Toledo** • ESAITeko koordinatzaile orokorra

## «Ofizialtasunerako urratsak emateko garai itxaropentsua da bizi duguna»

**I. Terradillos**

ESAITeko Martxel Toledoren arabera, Euskal Herri mailako txapelketak areagotu behar dira. Helburu horrekin antolatuko da Euskal Herria Mendi Erronka.

### Nondik sortu da ekimena?

ESAITen helburu nagusietako bat Euskal Herriko selekzioen ofizialtasuna da. Hori lortu bitartean, hainbat egin behar daude, Euskal Herriko federazio nazionalak sortzea, esaterako. Izan ere, Euskal Herriko selekzioak nahi baditugu, federazio nazionalak behar ditugu. Federazio nazionalak behar dira Euskal Herriko

txapelketa ofizialak antolatu ahal izateko. Egundik jokatzeko diren txapelketak Euskadikoak dira edo Nafarroakoak edo Frantziakoak. Gure helburua hori izanik sortu da proiektu berri hau. Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartuko duten lasterkarien artean txapelketa ofizial bat egingo da, eta irabazlea Euskal Herriko txapelketa izango da 60 kilometroko distantzian.

### 500 pertsonera mugatu duzue.

Ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dugu, eta bestetik, txapelketa den heinean ere, lehiakortasuna bultzatu nahi dugu. Bereziki, beteranoen eta emaku-

mezkoen parte hartzea bultzatu nahi dugu. 145 inguru badira dagoeneko izena eman dutenak. Gure erronka 500 inguru izatera heltzea da. Uste dugu lortuko dugula, eta poztekoa litzateke, esatekin antolatutako ekimen batek horrelako harrera ona izatea.

### Leitzan festa polita izango da egun horretan.

Horrelako ekimen batek giro ederra sortzen du. Aurreko egunean etorri behar da dortsalak hartzea. Parte hartzaileekin batera jende ugari etorriko da, eta egun pasa polita izateko hainbat ekitaldi izango dira. Herri kirolak, pilo-

ta partidak, musika... ondo pasatzeko osagai ugari izango dira.

### Zergatik lehendabiziko Euskal Herriko Mendi Erronka Leitzaldean?

Bertako inguruneak aukera aproposa ematen du horrelako ekimen bat antolatzeko. Bestetik, garrantzitsua iruditzen zaigu gisa honetako ekimenak Nafarroan antolatzea. Gainera, horrelako proba bat antolatzeko jende ugari behar da, eta Leitza eta bertako inguruan jendea laguntzeko prest izango dugunaren konfiantza dugu.

### ESAIT sortu zenetik gaur egunera arte zein bilakaera egon da?

15-17 urte hauetan zerbait lortu

bada, aldarrikapena kalera ateratzea izan da. Gure aldarrikapenak lekua eta oihartzuna lortu du gizartean. Bestalde, lasterketak, esaterako, Euskal Herri moduan egin dira, eta gure helburua zazpi herrialdeetako kirolariak maila berean parte hartu ahal duten txapelketak antolatzen jarraitzea da. Kirol txikietan hasi gara, baina kirol guztietan aukera izatea da gure asmoa.

### Aurrera begira nola ikusten duzue gaur egungo egoera?

Aldarrikapenetik haratago joanda, ofizialtasunerako urratsak eman behar dira. Gure ikuspegitik, zoritxarrez, eman behar ziren urrats guztiak ez dira eman. Gaur egun, berriz, bai politikoki bai eta sozialki ere aldaketa somatzen ari da. Orain federazioen aldaketa etorri da, erakundeetan ere aldaketa egon da, beraz, ezaugarri horiek guztiak kontuan hartuta, nahiko baikor eta itxaropentsu gaude.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### BESTELAKOAK

- **Ibarra.** Elkartasun kanpainaren barruan, Saharara bidaltzeko materiala biltzen ari dira. Udaletxean edo kultur etxean utzi beharko dira iraupen luzea duten elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskola materiala. 08:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.
- **Ibarra.** Uzturpe Ikastolako matrikulazio kanpainaren barruan, Ateak zabalik eguna izango da, gaur. Emeterio Arrese eraikinean egingo dute, eta 2 urteko haurren gurasoei zuzendua da. 17:00etan euskaraz eta 18:30ean, gazteleraz izango da.
- **Tolosa.** Hirukide ikastetxeko Giza Eskubideen astearen barruan, *La otra cara de la crisis. Jarrera baikorra eragozpenen aurrean* hitzaldia izango da, Hirukide eskolako areto nagusian. Hizlaria, Jose Antonio Gonzalez psikologoa eta adimen emozionalean aditua izango da.
- **Tolosa.** Hirukide ikastetxeko Giza Eskubideen astearen barruan, aste guztian zehar, postontzi erraldoia jarrita egongo da Trianguloa plazan. Bi galdera jarri dituzte edozein herritarrek bere proposamenak botatzeko: *zer egin dezakegu krisiaren aurrean? eta zer eskatuko zenieke agintariei?* dira erantzun beharreko galderak.
- **Amasa-Villabona.** Elkarta-

sun kanpainaren barruan, Amasa-Villabonako udaletxean materiala biltzen ari dira Saharara bidaltzeko. Bigarren solairuko ongizate sailera eraman behar dira; 08:00etatik 14:00etara, eta astelehenetik ostiralera.

- **Tolosa.** Gaur, hilak 31, Korrika batzordeko bilera izango da Lizardi elkartean. 18:30ean elkartuko dira.
- **Tolosa.** Gaur, 22:30ean, txistu ta soinu kontzertua izango da, Orbela tabernan. Garikoitz Mendizabal zestoarra txistua eta danbolinarekin, eta Xabier Zabala zarautzara soinu handiarekin izango dira.
- **Tolosa.** Lagun artean futbole-an aritzeko bi talde osatu nahi dituzte. Jende beterranoa nahi dute, eta Usabalgo zelai txikian elkartuko dira. Interesatuak, 688 63 77 84 telefono zenbakira deitu behar dute.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
  - **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarrren, 95. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Irudia Denboralearen argazki lehiaketa



## DENBORALEAREN ARGAZKI IRABAZLEA

Urte hasierarekin batera iritsi zen negua. Lehen elurrak Leitza, Areso, Berastegi edota Bidegoian zuritu zituen. Horren atzetik, ordea, egunetan gel-ditu gabeko euria izan da. Urak bere bidetik atera ziren eskualdeko hainbat txoko eta bazterretan. Eta elurrak berriz ere zuriz margotu zuen eskual-

dea. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak, argazki lehiaketa jarri zuen martxan denboraleak utzitakoa jasotzeko. Bidalitako argazkien artean, Maria Jesus Iturralde ibartarrak ateratako argazkia izan da irabazlea. HITZAKO materialekin osotuta sorta bat jasoko du. MARIA.JESUS.ITURRALDE

## Agurrak



### Zorionak!

**Aitona eta amona.** Ondo pasa eta muxu asko, Eider eta Laiaren partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**